



DIMAKO ANDRA

ETA GIZONEN

BERDINTASUNERAKO

I. PLANA

2010-2013

MURGIBE Berdintasunerako Aholkularitza

2010ko urtarrila

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Esparru teoriko eta legala	4
3. Metodologia	7
4. Aukeratutako ardatz estrategikoen eta eremuen justifikazioa eta beroriek tokiko errealitateari egokitzea.	8
5. Plana ezartzeko neurriak	10
6. Eremuak, helburuak eta ekintzak.....	13
1. Eremua. Neurri orokorrak eta Udala	19
2. Eremua. Hezkuntza	22
3. Eremua. Gizarte-ongizatea eta Osasuna	25
4. Eremua. Kultura, Gazteria eta Kirola	29
5. Eremua. Hirigintza eta Ingurumena	34
7. Kronograma.....	37

1. SARRERA

Dima Arratiako eskualdean kokaturiko 1.266 biztanledun herri bizkaitar bat da. Biztanle hauetatik 607 andrazkoak dira eta 659 gizonetzkoak.

Andra eta gizonen arteko berdintasuna ezartzea beharrezkoa da gizartearen esparru desberdinetan eta beharrian hau ezartzeko baliabide garrantzitsu batzuk andra eta gizonen arteko berdintasun planak dira. Hauen bitartez, arlo desberdinetan berdintasunarekiko dauden beharrianak asetzea posible da.

EAEko Andra eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak erakunde publikoek, berdintasunerako planak eta programak onartzeko beharra nabarmentzen du. 2008. urteko abenduan, EAEko 251 udalerrietatik 57 udalerrik zituzten andra eta gizonen arteko Berdintasun Planak beraien Udaletako plangintzen barnean.

Nahiz eta azken urteetan berdintasunaren inguruan gauzak asko hobetu diren, lan asko dago oraindik egiteko gizartearen maila desberdinetan andra eta gizonen arteko desberdintasun egoeraK baitaude gaur egun.

Diman, nahiz eta orain arte andra eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko aurrera eraman de ibilbidea laburra izan, ekintza desberdinak antolatu izan dira, hala nola, hezkidetza lantzeko tailer bat eta martxoak 8an, orain dela urte askotatik, afaria ospatzen dute herriko andrak. Ekintza hauetaz gain, berdintasunerako plana martxan jartzeko erabakia hartu izan da eta honek gaiarekiko dagoen interesa erakusten du.

Andra eta gizonen arteko berdintasun planek hurrengo helburu hauek dituzte:

- Udalerrian ematen diren desberdintasun egoerak antzeman eta saihestea.
- Andrazkoen behar zehatzak udal kudeaketan jasotzea.
- Andra eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako ildo jarraituz, etengabeko hobekuntzarako estrategiak eta prozesuak garatzea arlo guztietan.
- Berdintasun erreala lortzea.

2.- EREMU TEORIKOA ETA LEGE EREMUA.

Azken urteotan, lege eta arau juridiko ugari sortu da nazioarte, Europa, estatu eta toki mailan, eta horien helburua Andran eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Eskubidea onartzea da. Hori dela eta, Plan honek erakunde eta legearen babes handia du.

Genero-politiken inguruko lege eta teoria desberdinak bereiz daitezke:

- Apirilaren 2ko **7/1985 Legea**, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (03/12/21ean eguneratua).
- Otsailaren 18ko **4/2005 Legea**, Andran eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.
- EAEko andran eta gizonen berdintasunerako **IV. Plana**.
- Martxoaren 22ko **4/2007 Lege Organikoa**, andran eta gizonen berdintasunari buruzkoa.
- Toki Bizitzako Andran eta Gizonen Berdintasunerako **Europako Karta**.

[Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena \(03/12/21ean eguneratua\)](#)

Legearen 28. artikuluan esaten denez, udalerriek beste herri administrazio batzuen jarduera osagarriak egin ditzakete eta, bereziki, hezkuntzari, kulturari, andraren sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumenaren babesari buruzkoak. Testuinguru horretan, argia da tokiko administrazioaren protagonismoa, eta esku hartzeko tokia uzten da araudian, udalerriei jarduerak bultzatzeko modua emateko, baita herritarrek generoaren arloan dituzten beharrak eta igurikapenak betetzen laguntzeko beharrezko gizarte zerbitzuen eskaintza ere. Horrek ez dakar berekin, inola ere, beste herri administrazio batzuen eskumenak galtzea edo oztopatzea.¹

[Andran eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea](#)

Lege honen eremuan, andran eta gizonen berdintasunaren arloan administrazio maila bakoitzari dagozkion funtzioak zehazten dira argi eta garbi, betiere Autonomia Estatutuko 10.39. artikulua, Lurralde Historikoen Legearen 6 eta 7 c) 2 artikuluen eta estatutuko arauen (9.2. art.) eta EBkoen (Europako Batasunaren Itunaren 3.02. art.) ondoriozko eskumenak oinarri hartuta. Horiek guztiak behartu egiten dituzte herri botereak andran eta gizonen berdintasunerako baldintzak sustatzera eta horretarako oztopoak desagerraraztera andran eta gizonen berdintasuna benetakoa izan dadin. Gainera, berdintasun hori herri botereen politika eta ekintza guztietan sustatu behar dute.

Eginkizun hauek esleitu dizkio Andran eta Gizonen Berdintasunerako Legeak herri administrazioari:

- ✓ Egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea genero-ikuspegia ezartzeko.
- ✓ Ekintza positiboko neurriak betearaztea.
- ✓ Gobernuaren plangintza orokorraren eremuko programazioa eta foru aldundien programazioa.
- ✓ Estatistikak egokitzea eta eguneratuta izatea, andran eta gizonen desberdintasun egoera ezagutzeko, baita berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriak ezagutzeko ere.
- ✓ Andrak eta gizek toki mailan duten egoerari buruzko azterketak eta ikerketak egitea.
- ✓ Andran eta gizonen desberdintasunaz eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriez jabetarazteko jarduerak egitea.

¹ "Documento Marco para la Gestión de las Políticas Locales de Igualdad". Espainiako Udalerrien Probintzien Federazioa, Berdintasun Arloa, Madril, 2006

- ✓ Tokiko araudia andran eta gizonen berdintasunaren printzipioaren arabera aplikatzearen inguruko jarraipena egitea.
- ✓ Herritarrei eta bereziki andrei informazioa eta orientazioa ematea andran eta gizonen berdintasunaren gaineko baliabideei eta programei buruz eta diskriminazio anitza jasaten duten andran oinarritzko gizarte eskubideak eskuratzea bermatzeko programei edo zerbitzuei buruz.
- ✓ Programak edo zerbitzuak ematea, diskriminazio anitza jasaten duten andran oinarritzko gizarte eskubideak eskuratzea bermatzeko; izan ere, zerbitzuen izaera dela-eta, udalekoak izan behar dute.
- ✓ Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko gizarte zerbitzuak eta baliabideak ezartzea; izan ere, zerbitzuen izaera dela-eta, udalekoak izan behar dute.
- ✓ Erlazioak eta parte hartzeko eta lankidetzarako bideak ezartzea erakunde publikoekin eta pribatuekin; horien helburuen edo eginkizunen arabera, andran eta gizonen berdintasuna toki mailan lortzeko lagungarriak izango dira.
- ✓ Toki mailan gerta daitezkeen sexuaren ziozko diskriminazioak antzematea eta horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.
- ✓ Haien eskumenen eremuan esleitu dakiekeen beste edozein funtzio.

Andran eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana

Andran eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak frogatzen duenez, Andran eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea oinarritzko aurrerapena da berdintasunerako politiketan, zeren arauetan garatzen baitu berdintasunaren printzipioa, printzipio juridiko unibertsala, bai traturako berdintasunerako, bai aukera-berdintasunerako, euskal administrazioaren jardueran eta, hala denean, erakunde pribatuen jardueran.

EAEko Andran eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren diseinuari eta egiturari buruzko oinarritzko lau funtzio ezarri dira Legean:

- ✓ Plana burutzeko botere publikoen jarduketa eraendu behar duten oinarritzko printzipioak ezartzeko funtzioa, (Legearen hasierako titulua).
- ✓ Neurri-multzo bat arautzea genero-ikuspegia EAEko herri administrazioen eta botereen jardueran txertatzeko.
- ✓ Berdintasuna esku hartzeko arloetan sustatzeko neurriak bideratzeko funtzioa (III. Titulua).
- ✓ Oinarritzko edukiak zehazteko funtzioa.

Andran eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa

2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaraturiko legearen abiapuntua, alde batetik, andran eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa da: *"Giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da"*.

Bestalde, Legeak beste premisa bat ere badu oinarri gisa: berdintasun formala legearen aurrean erabat onartzea funtsezkoa izatea, araudien bidez hobetu beharrekoa, *"sexuaren ziozko zuzeneko edo zeharkako ezkutuko diskriminazio modu guztien kontra egiteko eta andran eta gizonen benetako berdintasuna sustatzeko, berdintasuna lortzea galarazten duten gizarte oztopoak eta estereotipoak desagerraraziz"*.

Besteak beste, funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da: "Ekintza positiboa", "Ordezkaritza orekatua" eta "Zeharkakotasuna".

Hauxe azaltzen da 21.1. artikuluan: *"Toki erakundeek berdintasunaren eskubidea ezarriko dute haien eskumenak erabiltzean eta, horretarako, lagundu egingo diete gainerako herri administrazioei"*. Hala, toki administrazioen euren eskumenak bete behar direla ezarri da 3/2007 Legean, oro har Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eratzikiak eta, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien kasuan, Andran eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehaztuak.

Tokiko Andran eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna

Tokiko Andran eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna, Europako Udalerrien eta Erregioen Kontseiluak bultzatua andran eta gizonen berdintasunerako erkidego-ekintzaren 5. programaren barruan, "Europako tokiko eta erregioko gobernuztat da, eta gutuna sinatzea, andran eta gizonen berdintasunaren printzipioari buruzko jendaurreko jarrera agerraraztea eta Kartan zehazturiko konpromisoak haien lurraldean aplikatzea eskatzen die".

EUDEL (EAEko Udalerrien Elkarte) da proiektuaren bazkideetako bat, eta gero eta euskal udal gehiagok sinatu dute gutuna. Gutun horrekin bat egin duten udalek hitzartu egin dute bi urteren buruan berdintasunerako ekintza-plan bat egitea eta abiaraztea, guztiek parte hartuta eginikoa eta ebaluazio-irizpideei lotuta, baita plan hori abiarazteko nahikoa baliabide izatea ere.

Europako Gutunak hauxe aintzatesten die tokiko eta erregioko agintariei: *"Esku hartzeko mailarik onenak izatea desberdintasunen iraunkortasunari eta berragerpenei aurre egiteko eta benetako berdintasunezko gizartea bultzatzeko"*.

3- METODOLOGIA.

Berdintasunerako edozein estrategia edo plangintza aurrera eraman aurretik ezinbestekoa da egoeraren diagnostikoa egitea, politika horiek kudeatuko diren udalerrriaren eta udalaren premia bereziei egokituko zaizkien erabaki kontzienteak hartu ahal izateko. Prozesuaren hasieran horrelako informazioa izateak, politika horiek ezartzerakoan berdintasunerantz nola aurreratzen dugun ezagutzea ahalbidetuko digu.

Dimako Udalerrian andran eta gizonen arteko berdintasunari buruz egindako diagnostikoa bi dimentsiotan bideratu da: batetik berdintasunerako politikei dagokienez Udalaren beraren egoera, eta bestetik, andran eta gizonen egoera Udalerrian. Datuak biltzerakoan, EAEn berdintasunerako politikak markatzen dituzten 4 ardatz estrategikoak ere hartu dira kontuan, hau da, genero-mainstreaminga; ahalduntzea eta andran partehartze sozio-politikoak: bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna, eta andran aurkako indarkeria.

Dimako diagnostikoa egiterakoan, informazioa biltzeko honako teknika hauek erabili dira:

- Hainbat zeharkako iturritik eskuratutako datuak, txostenak, memoriak, estatistikak etab. bildu eta analisatu dira.
- Udaleko eta Arratiako Mankomunitateko hainbat profesionali egindako 15 elkarrizketa (Udaleko idazkaria, arkitekto eta aparejadorea; Kulturako teknikaria, Bertso Eskolako ordezkaria, Dantza Eskolako 3 arduradun, Elizako taldeko 6 andra, eskolako irakaslea, Eskupilota Taldeko diruzaina, Ganaderuen Elkarteko bi bazkide, Gizarte Zerbitzuetako langilea, Gurasoen Elkarteko diru zaina eta bokala, Andarizea Elkarteko 2 partaide, Haur Eskolako 3 langile, Jubilauen Elkarteko ordezkaria, Laratzu elkarteko ordezkaria).
- Dimako andrekin egindako topaketa.

Diagnostiko honen ondorioz, indarguneak nahiz hobetu beharreko eremuak hauteman dira. Bi alde horiei jarraituz, eremu batzuk hobetzeko edota indarguneak bultzatzen jarraitzeko helburu eta ekintza zehatzak ezarri dira eta plan-zirriborro bat prestatu da, hiru mailatan egindako bileretan kontrastatua izan dena, maila politikoan, teknikoan eta biztanleria mailan.

Ekarpenak biltzeko aurreko fase horren ondoren, plana jendaurrean ipini da eta EMAKUNDERI bidali zaio udalbatzak onartu aurretiko txostena jaso ahal izateko, otsailaren 18ko 4/2005 Berdintasunerako Legeak ezartzen duen bezala.

4.- AUKERATUTAKO ARDATZ ESTRATEGIKOEN ETA EREMUEN JUSTIFIKAZIOA ETA HORIEK TOKIKO ERREALITATEARI EGOKITZEA.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Berdintasunerako politikiei dagokienez, datozen urteetan lehentasunez tratatuko diren gaiak honako ardatz estrategiko hauen bidez definitzen dira. Alegia: Maistreamingua, Ahalduntzea eta gizartearen eta alor politikoaren partehartzea; bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna eta genero-indarkeria. Horiek dira EAEko andra eta gizonen arteko berdintasunerako IV. Planean ezarri ziren ardatzak. Kasu batzuetan, ez dira aipatutako 4 ardatz hauek lantzen, proiektu honen plangintza herriko errealitatera moldatu behar izan delako.

1) Genero-mainstreamingua

Maistreamingua edo zeharkakotasuna 1987an proposatu zuen lehen aldiz Nazio Batuetako Andran Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak. Gizonek eta andrak parte-hartze publikoan dituzten egoera, baldintza, itxaropen eta premiak kontuan hartzea esan nahi du genero-mainstreamingak. Beraz, proposatutako helburuak aurrera ateratzeko orduan andra eta gizon talde bakoitzaren bereizitasunak, eta zehazki hainbat bazterkeria-mota jasaten dituzten andranak, hartu behar dira kontuan.

2) Ahalduntzea eta andren parte-hartze soziopolitikoa

Ardatz honek gizonen eta andren berdintasuna bultzatzea, eta bereziki andraren autonomia sustatzea eta beraren egoera sendotzea eskatzen du.

3) Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna

Ardatz honek bizitzaren arloetan gizon eta andran arteko berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea eskatzen du, pertsona mailako, etxeko eta laneko bizitza uztartu ahal izateko.

4) Genero-indarkeria

Lehenik eta behin halako indarkeriaz ari garenean zertaz ari garen zehazki definitzen du: "sexua tarteko, andrari kalte fisiko, sexual zein psikologikoa, edo sufrimendua eragin dion, edo eragin diezaiokeen edozein indarkeria ekintza, horren barne daudelarik halako ekintzak egiteko mehatxuak, derrigortzea, edo askatasuna bidegabe kentzea, bizitza pribatuan nahiz publikoan".

Plan horren bidez genero-indarkeriari osotasunean eta sektore anitzetatik egiten zaio aurre. Halatan, indarkeria mota horren adierazpen guztien aurka lan egitea proposatzen da, eta berdintasunerako legean lan egiteko bi prozedura identifikatu dira: prebentzioa eta arreta, koordinazioa izanik bien arteko zeharkako prozedura.

JARDUERA-EREMUAK

Dimako andran eta gizonen arteko berdintasunerako I. Planaren jarduera-eremuak honako hauek dira:

1. Eremua: neurri orokorrak eta Udala
2. Eremua: hezkuntza
3. Eremua: gizarte-ongizatea eta osasuna
4. Eremua: kultura, gazteria eta kirola
5. Eremua: hirigintza eta ingurumena

Dimako andra eta gizonen berdintasunerako I.Planeko jarduera-eremuen artean ez da lan eremua aurkitzen, orainarte gai honen ardura zuen erakundea desagertu delako (Behargintza). Horregatik, oraindik ez dago zehaztuta zein pertsona edota erakunde izando de lan eremuaren arduraduna eta gai hau argitu arte honen inguruan ez jardutea erabaki da.

5.- PLANA EZARTZEKO NEURRIAK

Berdintasunerako egiturak.

Andra eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikulua jasotzen duen bezala, foru eta tokiko administrazioek, auto-eraketarako euren eskumenen esparruan, egiturak egokitu behar dituzte administrazio horietako bakoitzean gutxienez erakunde, organo edo unitate administratibo bat egon dadin, bakoitzaren jarduerarako lurralde-organoeetan andra eta gizonen arteko berdintasunerako politikak bultzatzeaz, programatzeaz, ebaluatzeaz eta horiei buruz aholkatzeaz arduratzeko.

Sustapenerako eta koordinaziorako egiturak

Plan hau osatzen duten ardatz eta eremuetatik sortzen diren helburu eta ekintzak lortzeko hainbat egitura ezarriko dira, plana sustatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko. Egiturak honako hauek dira:

- **Sustapenerako egitura:** egitura honek bi organo izango ditu:
 - I. Plan honen esparruan erabakiak hartzeko proposamen zehatzak egingo dituen organo bat, eta horretarako Miren Lorea Bilbao Aketxe zuzenduko duen Berdintasunerako Batzordea osatuko da.
 - Gainera, Arratiako Mankomunitate mailan herri guztien zerbitzuan (Igorre, Artea, Areatza, Dima, Artea, ...) berdintasunerako teknikari bat izatea proposatuko zaio Mankomunitateari.
- **Udalaren barneko koordinaziorako egitura:** Udaleko eta Mankomunitateko teknikariek osatutako barne lan-talde bat eratuko da planeko ekintzak aurrera eramateko.
- **Udalen arteko koordinaziorako egiturak:** BERDINSAREA, Berdintasunaren aldeko eta Biolentziaren aurkako EAEko Herrien Sareko kide izatea aurreikusten da.
- **Andrak parte hartzeko organoa:** planak dirauen bitartean, andrak parte har dezaten organo bat eratuko da. Plan hori andrak beraiek dinamizatuko dute, beraien parte-hartzea bultzatzeko asmoz.

Era berean, plan hau ezartzen laguntzeko, berdintasunean aditua den laguntza tekniko kontratatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza eskatuko da.

Programaziorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak.

I. Plan hau programatzeko, aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan Urteko Programa Operatiboak egingo dira. Urteko Plan Operatibo horiek honako hauek jasoko dituzte:

Jarduera bakoitzean, eremu edo erakunde arduradun bakoitzaren lanerako planak: abiaburuan dagoen egoera, espero diren emaitzak, egingo diren ekintzak, tartean diren pertsonak eta erakundeak, egutegia, aurrekontuak eta adierazleak.

Programa Operatibo bakoitzerako aurrekontu orokor bat.

Berdintasunerako Planen jarraipena kudeaketaren atal garrantzitsua da. Dimako Udalak tarteko txostenen bidez egingo du planaren jarraipena. Txosten horiek honako hauek jasoko dituzte: aurreikusitako lan-plana, egindako lana, zailtasunak, aurrerakuntzak... Horretaz arduratu den eremu edo erakunde bakoitzak urteko ekitaldiaren erdialdera egingo ditu.

Sustapenerako egitura eta berdintasunerako teknikaria arduratuko dira txosten horiek kudeatzeaz eta aztertzeaz. Zentzu honetan, zehaztutako helburuak betetzen diren aztertuko da, bai eta planeko ekintzak zein mailatan burutu diren eta aurrera ateratzerakoan sortu litezkeen zailtasunak ere. Txosten hori 6 hilabetero egingo da.

Bestalde, 2009an Dimako Udalak 8.700€-ko aurrekontua finkatu du berdintasuna sustatzeko. Urte amaieran hurrengo ekitaldirako aurrekontua zehaztuko da, ahal den neurrian aurrekoaren parekoa edo handiagoa.

Ondorenean, eremu bakoitzaren lanerako planak zehazteko EKINTZEN fitxaren eredua azalduko da.

EKINTZEN FITXEN EREDUA

EREMUA			
HELBURUA			
EKINTZA			
JARDUERA			
Jardueraren deskribapena			
EKINTZAK BETETZEKO ARDURADUNA			
Eremuko arduraduna	Arduradunak	Eremuko laguntzaileak	Laguntzaileak
Burutzeko behar den denbora		Aurrekontua:	
		Jatorria	Kopurua
ADIERAZLEAK:			

6.- EREMUAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK

Atal honetan Planeko ekintzak eta helburuak garatzen dira, eremuen arabera sailkatuta.

Helburuek aldarazi nahi den errealitate soziala definitzen dute; lehenetsuna zer egitegori eman behar zaion finkatzen dute eta, proposatutako adierazleen eta ondorengo ebaluazioen bidez, lortutako emaitzak zehazten dituzte. Ezarri den eremu bakoitzerako helburuak finkatuko dira, eta horietako bakoitzean zer **ekintza** egingo den erantsiko da, guztiak EAEko Berdintasunerako IV. Planean jasotzen diren ekintza-multzoetan kokatuta: Ezagutza sortzea, sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena, prestakuntza, baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea, arauak sortzea eta doitzea, eta jarraipenerako mekanismoak sortzea eta egokitzea. Planteatzen diren ekintzen deskribapenak, horien baitan sartuko diren **estrategiak** aipatuko ditu.

Esan behar da ez direla zehaztu I. Plan honetako ardatz guztietarako programak, ez baita egokitzen jo hori egitea.

Dimako Berdintasunerako I. Planak honako helburu eta ekintza hauek jasotzen ditu:

EREMUAK	HELBURUAK	EKINTZAK
1. EREMUA: NEURRI OROKORRAK ETA UDALA	4	14
3. EREMUA: HEZKUNTZA	5	14
4. EREMUA: GIZARTE-ONGIZATEA ETA OSASUNA	5	17
5. EREMUA: KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA	9	28
6. EREMUA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA	5	12

GUZTIRA	28	74
----------------	-----------	-----------

Jarduera-eremu bakoitzaren hasieran, diagnostikoan Dimako andren eta gizonen arteko berdintasun egoeran hauteman diren indarguneak eta hobetu beharreko eremuak aipatzen dira aukeratutako helburu eta ekintzen abiaburu bezala.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK

	1. ARDATZA: GENERO- MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: AHALDUNTZEA ETA ANDRAN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: ANDRAN AURKAKO INDARKERIA
1. EREMUA: NEURRI OROKORRAK ETA UDALA	<p>MA 1.1. HELBURUA: Dimako andra eta gizonen berdintasunerako I. Plana Udalean, Mankomunitatean eta jendartean ezagutzera ematea.</p> <p>MA 1.2. HELBURUA: Dimako Udalean genero-ikuspegiaren instituzionalizazioa sustatzea.</p>	<p>AA 1.1. HELBURUA: Dimako andrak eta gizonak genero-berdintasunaz jabeaztea.</p>	<p>BA 1.1 HELBURUA: Udaletxeko gizon langileen artean erantzukidetasuna bultzatzea.</p>	--

	1. ARDATZA: GENERO-MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: AHALDUNTZEA ETA ANDRAN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: ANDRAN AURKAKO INDARKERIA
2. EREMUA: HEZKUNTZA	<p>MA 2.1. HELBURUA: Udalak hezkuntza ez arautura eta aisialdira bideratzen dituen jardueretan genero-ikuspegia txertatzea.</p> <p>MA 2.2. HELBURUA: Dimako eskola, haur eskolan eta familietan hezkidetzatza txertatzen laguntzea.</p>	<p>A.A. 2.1. HELBURUA: Eskolaz kanpoko jardueretan nesken eta mutilen parte-hartze parekatua lortzea</p>	<p>BA. 2.1. HELBURUA: Ikasleen artean erantzunkidetasunarekin lotuta dauden baloreak lantzea.</p>	<p>IA 2.1. HELBURUA: umeen artean eta neska-mutilen artean berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko harremanak sustatzea eta andran aurkako indarkeria prebenitzea.</p>

	1. ARDATZA: GENERO-MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: AHALDUNTZEA ETA ANDRAN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: ANDRAN AURKAKO INDARKERIA
3. EREMUA: GIZARTE-ONGIZATEA ETA OSASUNA	MA 3.1. HELBURUA: gizarte-zerbitzuen plangintza genero ikuspegitik egitea.	AA 3.1. HELBURUA: gizarte-bazterkeria arriskuan dauden andran egoera hobetzea (pobrezian daudenak, immigranteak, pertsona nagusiak, desgaitasuna dutenak), genero-ikuspegia kontuan hartuz. AA 3.2. HELBURUA: osasunari buruz orokorrean informazioa eskaintzea eta orientatzea, eta andra nerabe eta helduen artean osasuna sustatzea.		IA 3.1. HELBURUA: sexu-erasoak eta andran aurkako indarkeria jasan duten biktimen eskaerei erantzun eraginkorra eta kalitatezkoa sustatzea. IA 3.2. HELBURUA: umeen artean eta neska-mutilen artean berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko harremanak sustatzea eta andran aurkako indarkeria prebenitzea.

	1. ARDATZA: GENERO-MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: AHALDUNTZEA ETA ANDRAN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: ANDRAN AURKAKO INDARKERIA
4. EREMUA: KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA	<p>MA 4.1. HELBURUA: kirol eta kultura-plangintza genero ikuspuntutik egitea.</p> <p>MA 4.2.HELBURUA: gazteria Saitetik egiten diren ekintzetan genero ikuspuntua txertatzen hastea.</p>	<p>AA 4.1. HELBURUA: kirola egiten duten andran portzentajea handitzea eta andran interesen arabera kirola hautatzeko aukerak hobetzea.</p> <p>AA. 4.2. HELBURUA: gizarte eta kultura ez-sexista bultzatzea, andrak egindako lan kultural eta artistikoak kontratatuz eta sustatuz.</p> <p>AA 4.3. HELBURUA: Dimako gizon eta andran arteko berdintasuna sustatzea, bertan dauden talde eta elkarteen bitartez.</p> <p>AA 4.4. HELBURUA: Dimako gazteen artean berdintasuna sustatzea.</p> <p>AA 4.5. HELBURUA: gazte planeko ekintzetan mutil eta nesken parte-hartzea orekatzea.</p>	<p>BA 4.1. HELBURUA: ardura banaketa sustatuko duen kultura bultzatzea.</p>	<p>IA 4.1. HELBURUA: andran aurkako indarkeriaren kontrako balioak sustatuko dituen kultura bultzatzea.</p>

	1. ARDATZA: GENERO- MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: AHALDUNTZEA ETA ANDRAN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: ANDRAN AURKAKO INDARKERIA
5. EREMUA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA	MA 5.1. HELBURUA: hirigintzako jarduera-planetan genero ikuspuntua kontuan hartzeko beharrezkoak diren tresnak txertatzea.	AA 5.1. HELBURUA: udal- elementuen bidez andran ekarpenak plazaratzea (kaleak, monumentuak, plazak, ...). AA 5.2. HELBURUA: Dimako espazioen erabilera sexuaren arabera orekatzea.	BA 5.1. HELBURUA: Udalak familia, pertsona eta lan alorren arteko bateragarritasuna erraztu dezan, hori planifikatzeko eta diseinatzeko irizpideak identifikatzea.	IA 5.1. HELBURUA: Andrak ziur ez dauden edo sentitzen ez diren guneak identifikatzea, gune horiek desagertarazi ahal izateko.

1. EREMUA: NEURRI OROKORRAK ETA UDALA

Indarguneak eta hobetu beharreko eremuak

NEURRI OROKORRAK	
INDARGUNEAK	HOBETZEKO ESPARRUAK
Dimako andrak gogotsu daude berdintasunaren aldeko gauzak egiteko. Andran egunean 60 andra elkartu ziren afarian.	Orokorrean ez dira arlo desberdinetako datuak sexuaren arabera sailkatzen ez aztertzen.
Zeregin-administratibo eta juridikoetan udal administrazioak berdintasun politikekin zerikusia duten gaiak betetzera derrigortuta daudela.	Elkarteei diru-laguntzen esleipen prozesuan berdintasuna sustatzeko irizpidea ezartzea (irizpide hau ezarrita dago baina ez da honen jarraipenik egiten).
Udal barneko barne funtzionamenduan giro egokia: egoera, adierazpen edota gertaera sexistarik ez da somatzen.	Udalak herriko elkarte eta taldeekin harremanak indartu eta prozesu parte-hartzaileak areagotzea.
	Andra taldeak udalaren gestio eta kudeaketan integratzea (baina horretarako udalak bide hauek ireki behar ditu orokorrean)

Helburuak, ekintzak, arduradunak, epeak eta ebaluaziorako adierazleak.

MA 1.1. HELBURUA: Dimako andra eta gizonen berdintasunerako I. Plana Udalean, Mankomunitatean eta jendartean ezagutzera ematea.

EKINTZAK

MA 1.1.1. Hainbat baliabide erabiliz plana ezagutzera ematea: Arratiako eta Udaleko webgunearen bidez, Begitu aldizkariaren bidez eta Gorbeialde irratia bidez, hiritarrei zuzendutako aurkezpena eginez.

MA 1.1.2. Eremu bakoitzari dagozkion planaren aldeak, eremu bakoitzeko teknikarien artean banatzea eta beraiekin hori lantzea.

MA 1.1.3. Berdintasunerako I. Planaren laburpena argitaratzea eta zabaltzea.

HORRETAZ ARDURADUKO DIREN EREMU EDO ERAKUNDEAK

Alkatetza, berdintasunerako batzordea, Mankomunitatea eta Gorbeialde.

EPEA

2010, 2011

ADIERAZLEAK:

- Abian jarriko diren ekintza-motak eta kopurua.
- Arteako Udaleko, Mankomunitateko eta Gorbeialdeko langileen artean genero-

ikuspegitik burutu diren EKINTZA motak eta kopurua.

MA 1.2. HELBURUA: Dimako Udalean genero-ikuspegiaren instituzionalizazioa sustatzea.

EKINTZAK

MA 1.2.1. Dimako Udaleko teknikari eta politikariak berdintasunerako politiken alorrean prestatzea.

MA 1.2.2. Andra eta gizonen arteko berdintasunari buruzko udal ordenantza bat egitea.

MA 1.2.3. Hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzeko aholkuak jasoko dituen txosten bat egitea.

MA 1.2.4. Prestakuntzaren bidez, materialaren bidez, etab., Udalak erabiltzen dituen agirietan hizkuntza ez-sexista erabiltzea sustatuko duten baliabideak eskaintzea.

MA 1.2.5. Azpikontratazioan, andren eta gizonen arteko berdintasuna (andra eta gizonen arteko oreka, hizkuntza eta irudi egokiak erabiltzea, berdintasunean laguntzen duten erakundeei laguntza, ...) kontuan hartzen duten enpresak lehenestea.

MA 1.2.6. Dimako Udaleko zerbitzu guztietan sexuaren arabera bereizitako datuak genero-ikuspegitik aztertu eta interpretatzea.

MA 1.2.7. Udalak kudeatzen dituen subentzio eta diru-laguntzek genero alorrean duten eragina aztertzea.

HORRETAZ ARDURADUKO DIREN EREMU EDO ERAKUNDEAK

Alkatetza, berdintasunerako batzordea.

EPEA

